

## ARABAKO FORU ALDUNDIA

## DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

## Administrazio Xedapenak

## Foru Aginduak

## INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

784

**38/2013 FORU AGINDUA**, otsailaren 1ekoa, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren abuztuaren 10eko 400/2012 Foru Aginduan ezarritako baldintzak bete direla onartzen duena. Azken foru agindu horren bidez, behin betiko onartu zen baldintzekin Arriolako (Asparrena) SAUR-1 sektoreko plan partziala aldatzeko espedientea.

## AURREKARIAK

Lehenengoa.- Abuztuaren 10eko 400/2012 Foru Aginduaren bidez, behin betiko onartu zen Arriolako (Asparrena) SAUR-1 sektoreko plan partziala aldatzeko espedientea.

Bigarrena.- 400/2012 Foru Agindu horretan bertan ezarri zen, aipatutako baldintzak funtsezkoak ez zirela aintzat hartuta, horiek zuzendutakoan espedientea zuzenean igorri behar zitzaioela Foru Aldundiari, berriro jendaurrean jarri beharrik gabe, espedientea betearazi beharrekoa dela adieraz zezan, izapideak egin zitezten eta argitara zedin.

Hirugarrena.- 2012ko urriaren 22an izan zuen sarrera Aldundiaren Erregistroan espediente horren testu bateratuak, 2013ko urtarrilaren 24an aurkeztutako beste batek zuzenduak.

## II.- OINARRIAK

Aurkeztutako agiririk aztertuta, egiaztatu da aipatutako foru aginduak ezarritako baldintzak bete direla.

Horregatik, dagozkidan ahalmenez baliatuz, honakoa

## XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Betetzat jotzea Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren abenduaren 10eko 400/2012 Foru Aginduan ezarritako baldintzak. Foru agindu horren bidez, behin betiko onartu zen Arriolako (Asparrena) SAUR-1 sektoreko plan partziala aldatzeko espedientea.

Bigarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena.- Administrazio bidea agortzen duen ebazpen horren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahalko da zuzenean, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu ondorengo egunetik kontatzen hasita, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren jurisdikzio horretako salan.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 1a.- Ingurumen Eta Hirigintza Saileko Foru Diputatua, MARTA RUIZ CERRILLO.

## INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

790

**46/2013 FORU AGINDUA**, otsailaren 4koa. Honen bidez, behin betiko onarpena ematen zaio Kuartangoko eta Urkabustaizko mugarteen mugaketa espedienteari.

## I.- AURREKARIAK

Lehenengoa.- Kontzeju mugarteak mugatzeko Arabako Lurralde Historikoan egiten ari diren lanetan, egiaztatu da badirela zenbait huts Kuartangoko eta Urkabustaizko udal muga. Horregatik, Kuartangoko eta Urkabustaizko udalei komuna zaien jurisdikzio lerroa berrikusteko prozedura abiaraztea erabaki zen, bi udalek hala adostu ondoren.

## Disposiciones Administrativas

## Órdenes Forales

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

784

**ORDEN FORAL 38/2013**, de 1 de febrero, de Aceptación del cumplimiento de las condiciones impuestas en la Orden Foral 400/2012, de 10 de agosto, de la Diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, por la que se aprobó definitivamente con condiciones el expediente de modificación del Plan Parcial del Sector SAUR-1 de Arriola, municipio de Asparrena.

## ANTECEDENTES

Primero.- Por Orden Foral 400/2012, de 10 de agosto, quedó definitivamente aprobado el expediente de modificación del Plan Parcial del Sector SAUR-1 en Arriola, municipio de Asparrena.

Segundo.- La misma Orden Foral 400/2012, considerando que las condiciones señaladas no eran sustanciales, estableció que una vez subsanadas, se elevase el expediente a la Diputación Foral sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de declarar su ejecutoriedad y proceder a su diligenciación y publicación.

Tercero.- Con fecha 22 de octubre de 2012, tuvo entrada en el Registro de esta Diputación el texto refundido del expediente, corregido por otro posterior aportado el 24 de enero de 2013.

## II.- FUNDAMENTOS

Analizada la documentación aportada se comprueba que ha dado cumplimiento a las condiciones impuestas en la Orden Foral mencionada.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

## DISPONGO

Primero.- Dar por cumplidas las condiciones impuestas en la Orden Foral 400/2012, de 10 de agosto, de la Diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, por la que se aprobó definitivamente el expediente de modificación del Plan Parcial del Sector SAUR-1 en Arriola, municipio de Asparrena.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse directamente recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, 1 de febrero de 2013.- La Diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

790

**ORDEN FORAL número 46/2013**, de 4 de febrero de aprobación definitiva del expediente de deslinde de los términos de Kuartango y Urkabustaiz.

## I.- ANTECEDENTES

Primero.- En los trabajos de delimitación de los términos concejiles que se están realizando en el Territorio Histórico de Álava se comprobó la existencia de algunos errores en el límite municipal entre Kuartango y Urkabustaiz. Por ello, y de común acuerdo con ambos Ayuntamientos se decidió iniciar un procedimiento de revisión de la línea jurisdiccional común a los Ayuntamientos de Kuartango y Urkabustaiz.